

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA**OGASUN ZUZENDARITZA****Jokoaren gaineko zergari buruzko administrazio egintzak jakinarazteak**

Administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jakinarazpena egitea ezinezkoa izan denez, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta aipatutako artikulua eskatzen dituen jakinarazteko ahalleginak, gutxienez, egin ondoren, iragarki honen bidez ondoren zerrendatzen diren zergadunei edo beren ordezkariari dei egiten zaie agertu daitezen eta ondoko zerrendan adierazten diren prozeduren ondoriozko administrazio egintzen jakinarazpena jaso dezaten.

Interesdunek edo haien ordezkariak gehienez 15 egun izango dituzte bertaratzeko, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaritzako Zuzeneko Zergen Zerbitzura jo behar dute (Samaniego kalea, 14. Gasteiz), astelehenetik ostiralera, 8:15etik 14:30era, zerbitzu horrek izapidetutako prozeduretan egiteke dauden jakinarazpenak egiteko.

Adierazitako epea igarota, interesduna edo haren ordezkaria agertu ez bada, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da legezko ondorio guztietarako, agertzeko emandako epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 14a

Zeharkako Zergen Zerbitzuaren burua
ANA MARÍA ZUBÍA AGUILLO

IFZ	SOZIALTEAREN IZENA	PROZEDURA
J01450576	MADIMARO SC	2019ko 3. hiruhilekoaren likidazioa
B20605291	RECREATIVOS ALZAGA SL	2018ko 2. hiruhilekoaren likidazioa